

hallando las cepas de las columnas y cimientos de los muros del primitivo edificio, que se vió, nunca afectó en su planta la forma circular, sino rectangular, como sucedia en casi todos los templos y basílicas de los primitivos tiempos del imperio.

Esta interesante relación del señor Pavia mereció unánime alabanza.

Se levantó la sesión á las siete.

---

## GERTAERA ON UTSA DAN BAT.

---

On Antonio Arzác, neure adiskide kutuna:

Eziñ ichi neikezu adierazo бага, ganora baldreSean bada bere, azkenengo Abendudren 30 garrenean, Mundragoko Kontzeziñoko Komentuan, nire biotzaren guztizko pozgarri izan zan jazoera eziñ aztugarria; ikusi nebalako mojatzarako sartuten, amasei urteko neskatilla, Errosa Lazpitakoa derichakon, Berriz-ko neure adiskide batzuen alabea.

Dontzella samur eta sotill au, esan leiteke, Jaungoikoak euki dabela gorderik beretzako, ume umeetatik izan dabelako berez mojatzarako griña eta zaletasuna; eurakaz bada, asi zan amabi urtegaz, musikea ikasten Berrizko Komentuan; era amairu urte eukazanetik, oraiñ artean, Komentu barruan jardun dau, organuan eta gañera moja batek bear dituan azayerako ikasbideak artuten, eta azkenez sartu da aitatu deutsu dan Komentuan, organu jotzalletzat; non Eleiseak dituan zeremoniak egiñik ondoren sartu zan barrura (au da Komentura).

Gero bertako Bikario Jaun eta nire adiskide eta senide bere dan, On Bruno Zabala-koak, berbaldi egoki bat, mundua gorrotau eta Klausuroan sartzen direanen gañean azalduta, egikizun santu guztiak betetakoan, joan ginchakozan Lokutoriora, esan dodan Bikario Jauna, Diakono lagunak, Berriz ko Abade nausia, ait-amak, gañerako lagunak eta ni, Errosa zorionekoari, geure onerechia emotera, aukeratu daben estadu parebagea gaitik. Orduan, nire lagun ona, an batu zirean guztiak, gura eben zercho bait kantau negion nik bere gure Euskera gozoan, Moja-gei barriari, eta kantau neutsazan anchiñako zortziko

triste baten, zuri argitaratzeko bialduten deutsudazan *Agurrak*, eta azkenez bazkaldutakoan beste *Alabantzak* Gernikako Arbolaren aire ederrean. Ondo baderichazu, ipiñi daikezuz Errebistan; eta aurrez emonik datortzuzan eskerrak, agindu daikiozu beste mesede bat zeure betiko adiskide oni.

Ochandion 1894.<sup>ko</sup> Erregeen egunean.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

**Errosari, Mundargoko Kontzeziñoko Komentuan,  
Moja-gei sartu zanean kantauriko agurrak.**

I.

Agur, agur, Errosa,  
Zoaz Komentura,  
Zoaz ez jatsiteko  
Ain mundu galdura;  
Zoaz, zoaz, zoaz gaur,  
Libano altura,  
Andik igo dagizun  
Birjiñen tronura.

II.

Zoaz triste ichita  
Aita eta ama,  
Neba ta aitzai emonik  
Laztan samur bana;  
Zoaz, zoaz betiko,  
Esposoagana,  
Jesús dalako zure  
Maitegarri dana.

III.

Mats parreak badeutsa  
Eltzen egurrari,  
Errosak gura deutsa  
Gaur kurutzeari;  
Biotz ta arima bat eiñ  
Bertan ill zanari,  
Eriotzan koroia  
Artu dayan sari.

IV.

Eriotzeak danok  
Gaitu arrapauko,  
Bere sareeratik  
Ez gara librauiko;  
Zorionekoa da  
Jayoa gorako,  
Errosa zu zara bat  
Zu bai, Zerurako.